

## **"Patronalaren neurriera egindako konfinamenduari aurre eginez, oinarrizkoa ez den produkzio oro geratu egin behar da"**

*LABeko idazkari nagusi Garbiñe Aranburuk agerraldia egin du, Streaming bitartez, egoerak hala behartuta, egungo larrialdi egoerari buruzko balorazioa egiteko. "Salbuespen egoera bat bizitzen ari gara, baina ez gara osasun publikoko krisi huts bat pairatzen ari, indarrean dagoen sistema ekonomikoa da gaixo dagoena", nabarmendu du. Berretsi du sindikatuak hasieratik luzatutako mezua: "Lehentasuna birusaren hedapena gelditzea da. Horretarako berriro diogu: premiazkoa da edozein jarduera ekonomikoa gelditzea, herritarrentzat oinarrizko zerbitzua ez bada".*

<https://youtu.be/xP9UMSPD2Pc>

"Enpresek jarduera gelditu badute sindikatuon eta langileon presioarengatik izan da. Borroka beste biderik ez zaigu gelditzen. Patronalaren neurriera egindako konfinamenduari aurre eginez, oinarrizkoa ez den produkzio oro geratu egin behar da".

Garbiñe Aranbururen hitzak dira horiek, Streaming bitartez egindako agerraldian esandakoak. "Enpresetan gure osasuna bermatzen ez bada, planto egingo dugu gure esku dauden tresna juridiko guztiekin, baita ekintza sozialaren bitartez ere, langileen osasuna bermatu ahal izateko", adierazi du. Zentzu honetan, galdera bat luzatu du: "Non dago enpresen ardura soziala? Enpresa handien interesak defendatzen dituzten CEOE, Confebask, CEN patronalek ez dute inongo ardurarik hartzen, eta, gainera, krisia langileek eta kutxa publikoak ordain dezatela nahi dute". LABeko idazkari nagusiaren esanetan, "Gasteizko eta Iruñeko gobenuak aldaketak planteatu beharko lituzkete politika fiskalean krisia ere patronalaren bizkar gainean eror dadin. Gehien duenak gehiago ordain dezala".

Espainiako Gobernuako presidente Pedro Sanchezek atzo adostutako neurriak motz geratzen direla esan du: "Jarduera ekonomikoa mantentzen du, ERTEak aurkezteko erraztasunak ematen zaizkie enpresei inongo kosturik gabe, enplegua ez dela suntsituko ez da bermatzen eta ez daude ordaindutako baimenik zaintzarako".

Garbiñe Aranburuk argi utzi du: "2008ko krisiaren ondorioak langileek ordaindu zituzten. Ez dugu gauza bera berriro gertatzen utziko. Enplegu, pentsio eta bizitza duinen aldeko Greba Orokor batetik gatoz, ofentsibara planteatutakoa. Hori da bidea: eredu ekonomiko eta sozial baten aldeko borroka indartzea".

### **Sistema gaixo**

Krisiak sistema gaixo dagoela agerian utzi duela berretsi du: "Eredu honek gabeziak ditu egungo larrialdi egoeran: zaintza krisia; murrizketak zerbitzu publikoetan; lan eta prekarizazio soziala bultzatzen dituen ekonomia globalizatua; lan harremanen eta sozialen indibidualizazioaren apustua egiten duen eredu neoliberal".

"Gerran gaude", esan du Macronek. Bada, Pedro Sanchezen Gobernuak Alarma Egoera baliatzen ari da nazio batasuna indartzeko, kapitalaren zerbitzura.

Garbiñe Aranbururen hitzetan, "Polizia eta Ejerzitoa atera dituzte kalera gure mugimenduak mugatu eta zaintzeko. Bitartean, enpresa askok bere ekoizpena mantentzen dute inongo erreparorik gabe. Guk egindako salaketan aurrean, Osalan, INSL eta Lan Ikuskaritza bezalako erakundeak ez dira gai jarduera eteteko".

Gainera, gogoratu du krisi honetan ez gaudela denak egoera berean: "Emakume askok lanean jarraitu behar dute euren lana badelako oinarrizkoa".

Salaketak salaketa, orain lehentasuna pertsonen osasuna bermatzea dela azpimarratu du: “Ezin dugu ahaztu 2020. urtea odolustea ari dela izaten langileontzat, 16 langile hildakoekin. Zabor eta lur azpian jarraitzen duten Alberto eta Joaquin gogoan ditugu”.